

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektuak funtziona dezan hainbat funtsezko sozietate izango ditugu. Lehenik eta behin hornitzaileak beharko ditugu, eta guk txipak eta teknologia eskuratzeko TILE izeneko enpresagan jarriko dugu konfiantza. Hauen bidez eskuratutako teknologia ezinbestekoa izango da gure produktua merkaturatzerako orduan, funtsean beraien produktua hartu, eraldatu eta gure eremu geografikoan merkaturatzea izango baita guk egingo duguna.

TILE esperientzia handiko enpresa da sektore honetan eta hornitzeaz gain guri aholkuak emateko gai izango dira. Modu batean teknologiarik lotutako arriskuak eta zailtasunak murrizten ditugu honela. Enpresa honek AEBko merkaturatze soilik dihardu, eta gurean ez dugu lehiakiderik izango, horrelako txipak egiten dituzten gainerako enpresek Espainiatik kanpo funtzionatzen dutelako gehien bat, eta ez dago euskaraz diharduenik.

Bestalde, gure banaketa kanalen artean funtsezkoa izango da web orria, eta hau egiteko eta honen bidezko banaketa kudeatzeko norbait kontratatuko dugu. Gure bezero potentzialak elkartzen diren guneak izanik, denda fisikotan salduko ditugu lokalizatzaileak: farmaziak, umeen dendak, e.a. Beraz, hauekin harreman komertzialak izatea beharrezkoa izango da. Beste enpresa eta erakundeekin ere hitzarmenak egiteko prest egongo ginateke.

Guri dagokigunean, enpresaren oinarrian lau kide gara: Maria, Sara, Irene eta Lier. Maria hizkuntzetan aditua TILE sistema gure hizkuntzara itzultzeaz eta enpresaren kontuak eramateaz arduratuko da. Sarah eta Irenek banaketa kanalak kudeatuko dituzte, eta bezeroekiko harremanaz arduratuko dira. Lierrek marketin arloa gidatuko du; merkaturatzea eta estrategia berriak garatzea.